

Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA

Frantzi-ko Sindikatoak es daude kontforme



Eugène Descamps (C.F.D.T.)



Georges Seguy (C.G.T.)



André Bergeron (F.O.)



Joseph Sauty (C.F.T.C.)



André Maille (C.G.C.)

AZALETIK...

- Ogei ta hamar urte barru, Ibero-Ameriketako 600.000 milioi dolar-dun merkata bildu al izango du. Merkatu au Estatu Batuak duten merkatauren pare da ta bi terdi aldiz Europako Merkata baino aundiago.
- Alemania-k ez du balioz geituko bere dirua Frantzi'ri bere estuasunetik irutzen laguntzeko. Onela adierazi dute Gobernu Federatuko arduradun batzuek.
- Merkatu Batuko lurralde guziki etortzekoak dira Bartzelona-ko Salgai-Eraskusetara.
- Datorren Pazku-Bezperazko elizkizunetan lengo ein batzuek laburtuak izango dira. Suaren irazketa, Pazko-zirioarekin egiten dan prozezioko belaubiko-tzeko, eta oni jarri oi zitzaizkion argizari ta intentsu-aleak alde batera utziko dira. Erriarentzat adigaitzagoak ziran elizkizunak kendu nai izan dira.
- Iruña-ko gotzai dan Monseñor Tabera, Erroma-ra joan da. An, Eliz-Batzarra ezkerre sortu diran batzorde-etan lan egitera joan da joan ere.
- Paulo VI-garrenak «Giza-Promozio» Batzordea izen-datu du. Orreala, UNESCO'k artu duan mundu guziko alfabetatze-lanari lagundu nai dio.
- «Eliz Agintari-Katea» erriari laguntzeko sortua da, ia ez erria Eleiz-Agintari-Katea»rentzat. Itz auker Aita Santuarenak dira, ill onen 12-garrenean esanak. Ta au ere esan zuan: «Baiña onek ez du esan nai, Eleiz-Agintari-Kateak, demokrati-errietan bezela, bere aginpidea erriarengandik artu duanik; ezta erriari bere izatearen sorrera-berri eman bear dionik ere».
- 1961-tik 1965-garren urteraino bitartean, ia bi milioi espainiar aldatu dira beren bizilekutatik. Gipuzkoara etorri diran geienak, Extremadura-tik etorri dira;

- ta Bizkaia-ra etorri diran geienak, Gaztelerrri Zarretik.
- Estatu Batuak eta Portugal-ek beren Babes-Itunbena berrituko dute laster. Amerikarrak onela Azores ugarteetan beren Indar-tokiak antolatu al izango dituzte.
- Venezuela-ko lendakariak bere egitama agiri jarri du. Bere antolaketa ori Eskubide-Zuzendapenaren gainean erakia dala esan digute. Ta gizarte-Zuzentasuna ta gizonaren Askatasuna ere kontuan artuak izan dirala diote. Gobernuak onela erriar bakoitzari au adierazi nai dio: bakoitzaren babesa ta eskubide nagusiak gordeak geldituko dirala. Lendakariak urtebeteko agintea izango du.
- Komunisten Elkargoak izan duan IX-garren Batzarra, Errusita Txina-ko ordezkariarik gabe ospatu da.
- Koweit-ko Estaduak eguneru, itxasotik artutako ura gezatu ta edan-gai egiten du. Onela sortzen diru edateko 122 milioi litro itxasotik. Ba-da zer bait inñu orrelakorik egiten bada.
- Oraintxe atera da kaletara Italia-n plastikozko lenengo periodikua. Izenez «Giornale di Pavia» da. Beronek, polietileno-zko zortzi orrialde ditumutuz-zapi bat bezela tolosa diteketa ez da urratzen, ez euri-tan ondantzen ere.
- Saigon-go bizilagunak dira munduan berri geien jasotzen duten jendea. Eguneru beren eskura dituzte 46 egunkari. Eztira, beraz, atzean geldituzekoak.
- Itxasontzien toneladei begiratzen badiegu, Japonen sortzen dira munduko itxasontzien erdiak. 1969-garren urtean 17 milioi tonelada sortu ziran mundu guziko itxasontzietan. Japoiak bakarrik egin zituan 8'5 toneladadun ontziak.


ESKATU:

ZERUKO ARGIA'ren bidez, zure etxera bialduko zaizkizu, zuk nai dituzun liburu ta liburuxka auk:

	Ptak.
<input type="checkbox"/> Enziklika «Humanae Vitae»: Giza-Biziaz.	5
<input type="checkbox"/> 6-garren Paul Aita Santua ta «II-garren Batikano» Batzarra» Yurre'tar Yulen A.	90
<input type="checkbox"/> «Lourdes'ko Ama» - Euskal Meza. P. Francisco de Lazcano. Donosti'ko Eliz-barutian loratua.	35
<input type="checkbox"/> Kontu zarrak eta kontu berriak. Edic. «Apakia».	5

BRUÑO Liburuak

<input type="checkbox"/> Gazteen Biblia. F. Hoffmann eta Ondarrabi-ko F'ren itzak, eta A. Zugasti'k euskeratua	250
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----



AGINDUTAKOAK, BETE EZ

Igazko lorellean izan zan itxilu ta tira-bira franko Frantzi-aldean. Bai ikasle ta bai langilleen artean. Orduko erreboluziaren fruituak ez dira orain-dañoak burutu. Ernaldi luzea, nunbait... Luzehegia. Garai artan Gobernuak eta Sindikatoak artu-eman zorrotzak izan zituzten. Baita Gobernuak gauz asko agindu ta eskeini ere; momentu latzak bai ziran eta Estadua-ren izen-ona gordetzeko langilleen asarraldierakoak baretu egin bear ziran nola-nai.

Gizaernai-aldia bederatzit illebetekoa izan oi da. Ta orretxegatik-edo... bederatzit illebetik igazko urtean ainbeste eskeinikato Pompidou jauna, ta bestetik gaurko langille-alkartasunetako gidariak. Ona emen itz-motz bakoitzaren esan-naia:

Ez dute au uste Sindikatotako buruzagiak. Eta ortan dago korapiltoa. Begira alde batetik igazko urtean ainbeste eskeinikato Pompidou jauna, ta bestetik gaurko langille-alkartasunetako gidariak. Ona emen itz-motz bakoitzaren esan-naia:

- C.F.D.T.: Confédération Française Démocratique du Travail.
- C.G.T.: Confédération Générale du travail.
- F.O.: Force ouvrière.
- C.G.C.: Confédération Générale des Cadres.
- C.F.T.C.: Confédération Française des Travailleurs Chrétiens (endance Sauty).
- C.N.P.F.: Conseil National du Patronat Français.

ZINEAK GUTXITZEN ARI

Hein batean bederen, zinea gain behera doa. Ez itzaltzera edo ahaztuzter adoalako, hau ez teatroa joan ez dan bezela. Zine-ikusleak, halere, gutxitzen ari dira Europa guzian. Hitz batez: zinera doan jendetza hurriago da gaur orain dala urte batzuk baino; eta hurritzea ez da oraingo gelditu.

Estadistikek argiro erakusten digute hau. Belgika'n, esate baterako, haxe da zine-egoera:

1962-an ... 1.432 zinema-areto.

1968-an ... 820 zinema-areto.

Azkeneko sei urteotan, beraz, %eko 42 izan dira hetsiak. Ia-ia erdia.

Habaila hortan, beraz, laister galduko du zinea orain dala zenbait urte zuen inportantzia.

Zer egiten du jendeak, hortaz, zinea ez doalarik? Irakurleak berak ere ba daki: jendeak telebixta ikusten du. Telebixta nagusitu zio zineari urte gutxitan. Eta zinearen eragiña ukatzen duenik ez dago, nik uste. Hots, telebixta herrikoitu eta ugaldu ala, eragillego bihurtzen da. Herriarengana irixteko bidea, beraz, gero eta garbi-kiago, telebixta da.

Ondorio larriak ditu hunek. Herriaren moldagintzan, pentsakeran, hizkuntzan, estadistikek ongi erakusten dutenez, telebixta da gaur urrutitik nagusi; eta, Belgika'ko kasoak agererrazten duenez, gero ta inportantzia haundiago hartuko du. Telebixtaz jabetzeko burruka (De Gaulle'z gogoratzea aski da) gero eta latzago egiten da nun-nahi.

Zer egingo dugu guk, beraz, eskaldunok, telebista osoki erderaz dagoen artean? Deus ez! Gure etorkizuna eskolan jokatzan da, dudarik ez. Baiña telebixtan ere bai, eta ez gutxiago. Telebixtak gidatzen ditu herriak gaur Europa'n, telebixtak igarotzen baitu atetik izkutenak eta hestuenak.

Gure euskera maitea «mendi-tontoretan garbi eta orbangabe» beti egingo dala predikatzen zuten zozoak ixildu egin bide dira. Gaitz erdi! Baiña estadistikek erakusten dituen dato bildurgari horiek kontutan ez hartzea, tontorzalekita litzake. Eskolarenaz gain, badugu eskultzaleok helburu nabarmen bat: telebixta euskeraz.